

KARMELE MUÑO A ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

ZIURTATZEN DOT:

2009ko maiatzaren 27an **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

6.- INFORMAZINO-PANELAK EROSTEKO KONTRATUA BEHIN-BEHINEKOZ ESLEITZEA.

Xedea

Bermoko Udalak egun daukan alde bakarreko panel informatiboa alde biko bihurtzea eta udal honek zehaztutako gunean bikotxa dan argidun panel informatiboa ipinteko beharrezko ekipamendu eta software hornidura kontratua behin-behinekoz esleitzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2009ko apirilaren 22an udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak baldintza tekniko eta administratiboak onartu ebazan.

Bigarrena: 2009ko apirilaren 30ean ASEL, SL, JUAQUIN BEDIA, SL., ELECTROSOFT 2001, SL eta PROIEK enpresei konbitak bialdu jakezan.

Hirugarrena: 2009ko maiatzaren 18a zan eskaintzak aurkezteko azkeneko eguna.

Laugarrena: ASEL, SL, enpreseak, maiatzaren 11ko sarrera erregistroagaz, prezio kontuak dirala-eta ez eبالa eskaintzarik aurkeztuko adierazo eban.

Bosgarrena: JUAQUIN BEDIA, SL enpreseak, maiatzaren 12ko sarrera erregistroagaz, kontratuaren baldintza tekniko eta ekonomikoak beteteko ezintasuna aurkeztu eban.

Seigarrena: PROIEK enpreseak ez dau eskaintzarik aurkeztu, ezta bestelako adierazpenik egin be. Halanda ze, 2009ko maiatzaren 12ko sarrera erregistroagaz, Electrosoft 2001, SL enpreseak baino ez dau aurkeztu proposamena.

Argudioak

Bakarra: Electrosoft 2001, SL enpreseak aurkeztutako proposamenean jasotako dokumentazinoa bat dator udal honek martxan daukan panel informatiboen hornidurarako eskatutako baldintzakaz.

Erabagia

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

LEHENENGOA: Bermeoko Udalak, egun daukan alde bakarreko panel informatiboa alde biko bihurtzea eta udal honek zehaztutako gunean bikotxa dan argidun panel informatiboa ipinteko beharrezko ekipamendu eta software hornidura kontratua Electrosoft 2001, SL enpreseari esleitzea, behin-behinekoz.

BIGARRENA: Kontratua 37.810,20 €-an esleitzea. Prezioa: 32.595 €, gehi 5.215,20 € (BEZa).

HIRUGARRENA: Enpresa esleipendunari behin-behineko esleipena jakinarazotea.

15 laneguneko epea igarota, behin betiko esleipen proposamena egingo da.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespeneraren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2009ko ekainaren 1ean.

ONETSIA
ALKATEA